



Frantziako

ingurumen-merkatuaren
analisi

Aukerak identifikatzea

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

oclima
Basque Environment Cluster

BasqueTrade
& Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Basque-Basque Local Agencies

GRUPO
spri
INLDEA

EUSKADI JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT

LABURPEN

EXEKUTIBOA

Ingurumen-merkatuaren balioari dagokionez, Frantziakoa munduko handienetako bat da. Gainera, Euskadirentzat merkatu hurbila da eta euskal esportazioen merkatu nagusietako bat, beraz, ezin ukatu komeni dela aztertzea merkatu honek ingurumen-sektoreko euskal enpresentzat eskain ditzakeen aukerak.

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Frantziako ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloa osatzen duten mota desberdinetako agenteei aplikatzeko moduko balizko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzeko kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala*, *Airearen kalitatea (airea eta kutsadura)*, *Hondakinak*, *Lurzoru kutsatuak*, *Ekosistemak* eta *Fabrikazio ekoeraginkorra* eta *Ekodiseinua*.

Kateei dagokienez, lehenetsia eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei, lehen postuetan daudelarik **Uraren ziklo integrala** (kate nagusia) eta **Hondakinaren kudeaketa**.

Gestión de Residuos



Suelos Contaminados



Ciclo integral del agua



Calidad ambiental



Ecosistemas



Fabricación Ecoeficiente y Ecodiseño



Frantziak garrantzi handia ematen die ingurumen arloko gaiei bere laguntza-politikaren bitartez. Frantziako "Relance" Planaren helburuetako bat da lehiakortasuna sustatzea sektore kritikoetan inbertituz, eta horretarako, hainbat ekimen ekologiko edo berde abiaraziko dira, Frantzia Europako lehen ekonomia handi eta deskarbonizatua izan dadin.

Zehazki, "Relance" Planak bere baitan hartzen ditu ekologiarekin zuzenean lotutako hainbat alderdi, hala nola industriaren deskarbonizazioa, Hidrogeno berdearen ekoizpena eta Bioaniztasunaren babesa, lurraren artifizializazioaren aurkako borrokaren eta nekazaritzako trantsizioaren bitartez. Lan-ildo horiek ingurumen-sektoreko hainbat aukera sor ditzakete euskal enpresentzat.

Frantziak bere kate nagusietan duen jarduerari dagokionez:

Hondakinen arloan hainbat premia dauzka birziklapen-tasa optimizatzeko eta birziklapen gaitasunak handitzeko. **Uraren** arloan, bere arazo nagusietako bat da lurpeko zein gainazaleko uren kutsadura, eta ur hori edangarri egiteko beharra. Horregatik, kate horretako ondasun eta zerbitzuen inportazioek **inportazio guztien % 45** hartzen dute.

Eskualde interesgarrienei dagokienez, arreta berezia jarri zaie hurbilen daudenei, hurbilen egoteaz gain, uren kutsadurak eragindako arazo larriak dituztelako eta, beraz, baita ere premia handiak baliabide hidrikoen deskontaminazioan, ura edangarritzeko prozesuan eta berrerabilpenean.

Horrez gain, hainbat **joera espezifiko** antzeman dira, merkatuko aukerak sor ditzaketenak, esaterako, nitxoko teknologien garapena landaketa estentsiboetan, arbolazaintzan eta ardogintzan erabiltzen diren uren tratamenduan eta deskontaminazioan. Badago beste joera interesgarri bat ere, hirien **garapen urbano jasangarria, EcoQuartier** eta **EcoCité** bezalako proiektu ikurrek sustatua eta aukera berriak sor ditzakeena airearen kalitatearekin eta energia, ur zein hondakinen kudeaketarekin lotutako lan-ildoetan.

Oro har, aukera batzuk identifikatu dira Frantziako enpresek eskain ezin dituzten zerbitzuak osatu ditzaketen enpresentzat, batez ere balio-kate hauetan: Uraren ziklo integralean, Hondakinen kudeaketan eta Airearen kalitatean.

Halere, badaude hainbat sarrera-oztopo, Frantziako merkatua oso heldua eta lehiakorra baita, eta, hortaz, ezinbestean eskaini behar direlako balio erantsi handiko konponbideak, gainerakoengandik bereizteko modukoak. Era berean, kontuan hartu behar dira burokrazia, araudiak eta hizkuntza, eta zenbait aukera-merkatutan sartu ahal izateko aztertu egin behar da komeni den tokiko enpresaren batekin bazkietzea.

EUSKADI

BASQUE COUNTRY



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60